



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2009-04-08**

VIIURTEA 1.674.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Mariano Arsuaga Aranburu jauregian prentsari bere lana erakusten, bere emazte Maria Cuetorekin batera. E. EZEIZA

## AZKEN 12 URTEETAKO IKUSPEGIAREN ISLADA ARANBURU JAUREGIAN

**TOLOSA** Mariano Arsuagaren 'Kaleidoskopio +12' izeneko bilduma dago ikusgai; artista tolosarraren lana Aste Santuetan dago ikusgai s

## Insaluseko langileak Lan Ordezkaritzak dioenaren zain

**LIZARTZA** Lan erregulazio txostena eskatu du enpresak; 34tik 22 langileri eragingo lioke 6

**IÑAKI GEREÑU** PEACHY JOKE TALDEKO TEKLATU-JOTZAILEA

«80. hamarkada bukaerako soinu zikin hori bilatu dugu»

**TOLOSALDEA** 'The Grey Reveille' izeneko diskoa kaleratu du eskualdeko laukoteak 2

**PABLO SASTRE**  
IDAZLEA

«Ugaritasunaren aurrean harridura transmititu nahi izan dut»

**TOLOSA** Bere azken lanaz, 'Gauzen presentzia'-z aritu da idazlea 4

**Gaztetxean sartu dira lapurtzera, azken 3 urtetan zapigarrenez**

**ANOETA** Dirua eta edaria eraman dute; musika lokaletara ere sartu dira 6

## LIBURUA SALGAI

Salmenta:


Liburuaren prezioa: 18 €  
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140 €
-----------------	--------------------

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudendetan.
- Ibarako Lurdes liburudendan.
- Villabonako Basajaun liburudendan.



E **Elkarrizketa****IÑAKI GEREÑU, 'Gere'** Peachy Joke taldeko teklatu-jotzailea

**Kultura** » Rocka maite du Peachy Joke taldeak; Tolosaldeko lau gazteek osatzen dute; Gere teklatu-jotzaileak, Lemy gitarristak eta ahotsak, Bop bateriak eta Lou baxu-jotzaileak.

REBEKA CALVO

Berez Peachy Joke taldea 2000. urtean sortu zen, baina lehen urteetan Korn edo Deftones taldeetako moldaketak egiten hasi ziren. 2005. urtera arte ez zuten maketa ateratzeko aukerik izan. Partaide desberdinak izan dituzte azken urteetan, baina gaur egun laukote dira. Rocka maitatzen jarraitzen dute, hala ere, bere lehen diskoan, *The Grey Reveille* agerikoa den bezala. Kontu desberdinak direla medio, oraintxe ez dute gehiegi entsegutzen, baina segituan hasiko dira berriz ere lanean, urrian diska berri bat grabatzen hasiko baitira. **HITZAK** Iñaki Gereñu, *Gere*, teklatu-jotzailearekin hitz egin du taldea hobeto ezagutu ahal izateko.

**'The Grey Reveille' izeneko lehen diskoa kaleratu berri duzue eta abestiak entzuterakoan Pearl Jam, Soundgarden eta Red Hot Chili Peppers bezalako taldeak datozkigu burura, baina nola definitu zenukete zuek zeuen musika?**

Rockaren inguruan gabiltzala esan dezakegu, nahiz eta kanta batetik bestera aldaketa nabaria ageri den. Agian kantaren batek badu Pearl Jam taldearen eraginaren bat, *White* kantuak adibidez... Bestalde, talde askoren antza dugula esan digute, baina ez dut uste talde bakar baten eragina dugunik. 80. hamarkada bukaerako soinu zikin hura bilatzen saiatu gara.

**Zenbat denbora eman duzue diskoak prestatzen?**

Diskoko kantuak bi urteetan zehar egin genituen eta azkenik, Nafarroako Montreal izeneko estudioan grabatu genuen lehen diskoa Hans Krügeren eskutik (Delorean, Half foot outside, El columbia asesino... bezalako taldeekin lan egin izan duena, hain zuzen). Diskoa, berriz, Santo Grialen eskutik kaleratu dugu.

**Nola aukeratu zenituzten disko-rak kantuak?**

Beti ibili gara kantu berriak egiten eta entseguetan joaz, batzuk atzean geratu dira, erdi galdurik, eta beste batzuekin aurrera jarraitu genuenez diskoan geratu dira.

**Zergatik Peachy Joke izena?**

Maketa grabatu behar genuenean ez genuen izenik eta bat behar genuela... hau aterara zen.

**Eta diskoaren izena, 'The Grey Reveille'?**

Diskoaren izenburu bezala, *The Grey Reveille* (Diana Grisa) disko-ko *Black* eta *White* kantuekin zer



HITZA

## «80. hamarkada bukaerako soinu zikin hura bilatu dugu»

ikusia duen izenburua da. *Black* diskoko lehen kantua da eta *White*, aldiz, azkena, bat rockeroa da oso eta bestea countryaren ñabardurak dituen kantu lasaia da. Neska-mutil baten arteko erlazio bati buruzkoa da; bata mutilaren ikuspuntu jorratzen du eta neskaen araberako erlazioa da bestea.

**Nola aldatu da zeuen musika 2000. urtean beste talde batzuen kantuak moldaketak egiten hasi zinetenetik?**

Izugarrí, kantu metalero oso gogorrek hasi ginen [kar, kar, kar]. Poliki-poliki joan den garapen bat izan da, baina lehenengo kantuek eta oraingoek ez dute zerikusirik.

**Maketatik 'Wake Up' eta '5top' kantuak azpimarratzen dituzue, batez ere energiak beteta daudelako, indartsuak direlako, ba al dago aldaketarik kantu hauetatik diskokoetara?**

Bai eta asko, gainera. Rockean askoz ere sakonago sartu gara eta zuzenean gehiago eskertzen diren

kantuak egiteaz arduratu gara. Bide horretatik aurrera goaz eta urrian grabatuko dugun diska berrian ikusi ahal izango da.

**Zeren inguruan hitz egiten duzue zeuen kantuetan?**

Letrak Lemyk egiten ditu eta egia esan metaforekin jolastea asko atsegin du. Maitasunez, egunero ko gauzetan ateratzen diren sentimenduez... hitz egiten dugu normalean.

**Modu natural batean ateratzen zaizue ingelesez kantatzearena, hori esan izan duzue hainbat elkarrizketetan, behintzat, entzuten duzen musika ere ingelesezkoa izango da, behar bada...**

**Rockaren inguruan gabilta, nahiz eta kanta batetik bestera aldaketa nabaria ageri den**

**Musikaren panorama ez dago ondo sortu berri diren taldeentzat, laguntza oso eskasa izaten dugu**

Betidanik entzun izan dugu gehienbat kanpoko musika. Hasiera batean Lemyk lehen mikrofonoa hartu zuenean argi zeukan ingelesez abestuko zuela...

**Hemengo taldeen inguruan, ba al duzue gustokorik?**

Badaude baten batzuk, nola ez bal; Atom Rhumba, Delorean, Sfinsters...

**Nola dago panorama musikarientzat Euskal Herrian? Izan ere, zuek kontzertu gehienak kanpoan eman dituzue...**

Musikaren panorama ez dago baxu ondo, ez behintzat sortu berri diren taldeentzat, laguntza oso eskasa izaten baitugu. Guk Euskal Herriatik kanpora kontzertu gehiago eskaini ditugu bertan baino. Azkenengo hilabetean, esate baterako, Andorran hiru kontzertu eskaini ditugu, Bartzelonako Fnac dendan ere aritu gara... Bermeoko Kafe Antzokian ere jo dugu orain gutxi, hala ere.

**Non emango dituzue hurrengo kontzertuak?**

Orain dela egun gutxi Lou gitarristaren praktikak direla eta Inglaterrara joan zaigu hiru hilabetetarako, kontzertuekin jarraituko dugu nahiz eta orain ez dugun data zehatzi lotuta. Gure Myspacean jarriko ditugu berehala hurrengo datak ([www.myspace.com/peachyjoke](http://www.myspace.com/peachyjoke)).

**Esandakoaren arabera, beraz, zu Jakan bizi zara, Lou Ingalaterran dago... Nola egiten duzue entseगतzeko?**

Ikasketak eta lanak direla eta elur-retako denboraldia kanpoan izaten naiz ni. Atzera eta aurrera ibiltzen naiz kontzertuekin, baina egia esan gutxi entsegutzen dugu. Boladak izaten dira, hilabete barru herrian izango naiz berriz lanerako prest.

Aste Santuen oporraldiaren harira HITZAK Argazki Lehiaketa antolatu du; argazki irabazlearentzat bi lagunentzat asteburu bateko egonaldia izango da opari Muxikako Aldori landetxe ikusgarrian; bigarrenarentzat Larrea jatetxean bi lagunentzat otordua izango da eta hirugarrenak Gorrotxategi gozotegiko saskia eramango du; anima zaitetz eta parte hartu!

# Erakutsi mundua zure begietatik

## ERREDAKZIOA

**A**urtengoan krisiaren oporraldia izango dela diote adituek. Jendeak diru gutxiago xahutuko omen du Aste Santuetan eta egonaldi laburragoak egingo ditu. Turismoaren sektorean dihardutenek euren eskaintzen makina martxan jarri dute bisitariak erakartzeko. Kanpoan zozatenentzat zein etxean geratzeko erabakia hartzen duzuenontzat HITZAK martxan jarri du bere Argazki Lehiaketa. Honekin bederatzigarren aldiz antolatu du argazki onena topatzeko lehiaketa hau. Eta sari erakargarriak eskaintzen ditu.

Oporraldi motza izanagatik ere jende ugari hartzen du parte bertan eta urtero-urtero argazki eder asko biltzen dira Hitzaren erredekzioan: pertsonaiak, paisaiak, naturaren bitxikeriak, ... Edozeinek irabaz dezake epaimahiaren arreta. Hala ere, beti bezala, azken hitza harpidedunek dute, euren bozkek erabakitzen baitute nor den irabazlea.

### Irabazlearentzat, asteburu bat Muxikako Aldori landetxean

Sari interesgarriak daude aukeran. Argazki irabazlearen egileak Muxikako (Urdaibain) Aldori landetxe ikusgarrian bi lagunentzat asteburu bat irabaziko du. Landetxeak modernitatea eskaintzen du inguru ezin hobean. [www.aldori.es](http://www.aldori.es) helbidean xehetasun guztiak ikus daitezke.

Bigarrenarentzat ere izango da saririk. Hain zuzen ere, Tolosako Larrea jatetxean bi lagunentzat bazkaria edo afaria oparitu du HITZAK harpidedunen bozken artean bigarren postua lortzen duenarentzat.

Hirugarrenarentzat, berriz, Tolosako Gorrotxategi gozotegiko saski ederra prestatu du: Txokolatetzko txapela, xaxu kaxa bat, Tolosako teilak eta zigarratxoak, gurinezko pastak eta Txakolinezko bonboi kaxa bat.

### Parte hartu nahi al duzu?

#### Erraza da

Argazkiak bidaltzeko posta elektronikoz ([tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)), posta arrunta erabiliz (Araba Etorbidea 5, atzea. Tolosa, 20.400 helbidera bidali eta zehaztu Argazki Lehiaketarako dela) edota HITZAREN egoitzetara (lehen aipatutakoa edo Leitzakoa) ekarriz egin ahaliko dute parte-hartzaileek.

Jasotako argazkiak egunkarian argitaratzeko joango dira apirilaren 15etik aurrera. Hauetatik batzuk publikatzeko denborarik ez balu emango ere, horrek ez du esan nahi lehiaketan sartzen ez direnik.



Azken edizioako argazki irabazlea izan zen Maria Jesus Olanok Mozanbiken ateratakoa; «Emakumeek aurpegia zuritzatzeko ohitura dute», azaldu zuen irabazleak argazkia bidaltzerakoan. MARIA JESUS OLANO

Guztiak interneten izango dira ikusgai [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info) webgunean eta epe barruan jasotako guztiak izango dute lehiaketa irabazteko aukera.

### Aste Santuan zehar ateratako argazkiak soilik bidal daitezke HITZAREN lehiaketara

### Zortzi finalistak maiatzaren 3ko alean aterako dira; ondoren bozkatu beharko da

### Lehiaketaren nondik norakoak

Batzuk bi astez izaten dute jai Aste Santuan baina apirilaren 14tik aurrera has zaitzekete argazkiak bi-

daltzen. Egun horretatik aurrera, berriz, jasotzen diren argazkiak argitaratzeari ekingo dio HITZAK. Hala, apirilaren 30ra arte jasotzen diren argazkiak, hau barne, onartuko dira lehiaketarentzat. Asteburu horretan bertan, maiatzaren 3an, 8 argazki aukeratuak argitaratuko dira.

### Hainbat baldintza

Hortik aurrera, lana harpideduna izango da, haien esku egongo baita guztietan irudi ederrena zein den aukeratzea. Aste horretan zehar, maiatzaren 8ra bitarte, harpidedunen bozkek jasoko dira, emailaz edo telefonoz. Ezinbestekoa izango da harpidedun zenbaita esatea bozka ematerako garaian. Bozka emaillek ere Hitzaren materialaren zozketan sartuko dira.

Esan bezala, Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN irakurle guztiak dute aukera lehiaketan parte hartzeko, ez dute zertan harpidedun izan. Hori bai, argazkiak aurtengo Aste Santuetan atera beharrekoa izan beharko du. Haatik, bozka eman nahi dutenek harpidedun izan beharko dute eta harpidedun bakoitzeko bozka bakarra onartuko da. Hori dela-eta harpidedun kodea eskatuko da.

### Sarean ikusgai

Aurreko edizioetan bidalitako argazkiak ere ikusgai daude Hitzaren webgunean. *Irudiak atalean.* Sartu eta ikusi urteetan zehar irakurleek bidali dituzten argazkiak. Zurea ere bertan ikusi nahi al duzu? Parte hartu orduan IX. Argazki Lehiaketan. Sari zoragarriak dituzue eskuragarri.



Bigarren argazki bozkatuena, berriz, hau izan zen; udan, Saharako umeak Donostian. ELIXABETE EIZAGIRRE

## » HAINBAT DATU

### Epeak

- Argazkiak apirilaren 14tik aurrera bidali daitezke. Apirilaren 30a izango da azken eguna (azken hau barne).
- Maiatzaren 3an Hitzaren epaimahiak aukeratuako zortzi argazki finalistak argitaratuko dira.
- Maiatzaren 10ean irakurleek aukeratuako argazki irabazlea argitaratuko da. Harpidedunek bakarrik bozka dezakete. Bozkatzeko epea maiatzaren 8an bukatzen da.
- Bozkatzeko, telefonoz (943 655695) edo mailaz ([tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)) egin daitezke. Harpidedun kodea zehaztu beharko da, bestela, bozka ez du baliorik izango.

### Sariak

- Irabazleak bi pertsonentzako astebururako egonaldia irabaziko du Aldori landetxean (Muxika, Urdaibain).
- Bigarren sailkatuarentzat Tolosako Larrea jatetxean, bi pertsonentzako bazkari edo afaria.
- Hirugarrenari Tolosako Gorrotxategiaren saski berezia egokituko zaio: Txokolatetzko txapela, xaxu kaxa bat, Tolosako teilak eta zigarratxoak, gurinezko pastak eta Txakolinezko bonboi kaxa bat.
- Parte-hartzaile eta boto emaillean artean HITZAKO produktuak zozketatuko ditugu.

### Baldintzak

- Aurkeztutako argazkiak Aste Santuetako oporraldikoak behar dute izan.
- Paperean, diapositiban eta formatu digitalean onartzen dira.
- Bidaltzeko aukerak: posta elektronikoz ([tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)) edota posta arruntez egin daitezke (Araba etorbidea 5, behea. 20.400 Tolosa edota Herriko plaza 1, Leitza).
- Argazki digitalek, gutxienez, ezaugarri hauek izan behar dituzte: 20 zentimetroko zabalera eta 300eko bereizmena.
- Jari behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Horrez gain, argazkia non eta noiz egin den, eta zer ikusten den adierazi beharko da.
- Jasotako argazkiak artxiboan gordeko ditugu, eta HITZAK behar dituenean argitaratu ahal izango ditu.
- Jasotzen diren argazki guztiak sartuko dira lehiaketan, baina HITZAK jasotako lehen 50 argazkiak argitaratuko ditu.
- Argazki guztiak webgunean izango dituzue ikusgai.
- Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra bidal dezake.

**E Elkarrizketa****PABLO SASTRE** | Idazlea

# «Gauzen ugaritasunaren aurrean harridura transmititu nahi izan dut»

**Tolosa** » Madrilen jaio arren Pablo Sastre idazleak euskaraz idazten du; bere azken lana 'Gauzen presentzia' izan da eta duela gutxi gazteleraz argitaratu du.

**ENERITZ MAIZ**

Pablo Sastre (Madril, 1958) idazlea 16 urterekin etorri zen Euskal Herrira. Besteak beste, Hondarrabian eta Andoainen bizi ostean iaiztik Tolosan bizi da. Duela bi urte *Gauzen Presentzia* liburua idatzi zuen eta duela hilabete gutxi gaztelerarazituli du.

**Oso gazterik hasi zinen idazten, ezta?**

Bai, oso txikitik hasi nintzen idazten. Eta hasiera hartan, gazteleraz idazten nituen ipuinak eta poesia batzuk. Hona etorri eta euskalduntzearena prozesu luzea izan zen.

**16 urte bitarte ama hizkuntza gazteleraz zenuen. Zergatik ikasi zenuen euskara?**

Euskal Herrira 16 urte bete berriakin nituela etorri nintzen. Lehenengo Lapurdin, Donibane Lohitzunen bizi izan nintzen eta euskararekin lehen kontaktua bertako jendearekin izan nuen. Orduan, Lapurdi bera ere, kostaldeko herriak kenduta oso euskalduna zen. Pixkabat barneratzen bazinen edo mendi buelta bat egitera joanez gero, edozein baserriarrek, edo beraien seme-alabek euskaraz egiten zizuten. Nahiz eta hitz gutxi batzuk jakin beraiek euskaraz egiten zizuten ez esaldiak gelditzen nintzen eta erraza izan zen. Euskara hizkuntza bizia zela ikusi nuen eta zaletasuna piztu zitzaidan.

Gero hantxe errefuxiatu batzuk ezagutu nituen eta haietako batzuk ere baziren ni bezala euskara ez zekitenak eta taldetxo bat osatu genuen; lagun bat eskolak ematen hasi zitzaigun. Horrela pare bat urte pasa ziren eta hegoaldera etorri ginen bizitzera, Gipuzkoara. Gipuzkoa, Nafarroa eta Behe Nafarroan baserri batean eta bestean egon nintzen eta klase handirik gabe euskara ikasi nuen eta ia 19-20 urte nituela neroni hasi nintzen AEKn klaseak ematen.

**Eta euskaraz idazteko aukera egin zenuen?**

Idazteko trebezia behar da eta denbora gehiago pasa zen. Hasieran artikuluren bat idatzi nuen eta lehen liburua oker ez banago 1982an izan zen. Orain lehen artikulua eta liburuekin oso lotsatuta nago baina normala da, idazle



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

gehienak lotsatu egiten dira aspal-diko edo lehenengo lanekin.

**Eta orain erosoago sentitzen zara euskaraz idazten?**

Behin buelta hori eman eta gero ez nuen berriz planteatu hainbat urtez gazteleraz idaztea. Gutun bat idazteko arazorik ez, baina zerbaite itzultzea edo neure liburua edo literatura gitea tokatu izan zaidanean, ez naiz hain eroso sentitzen.

**Azken lana 'Gauzen Presentzia' izan da. Zer aldarrikatu nahi izan duzu lan horrekin?**

Garapenaren kritika dela esan daiteke. Gauzen ugaritasunaren aurrean halako harridura transmititu nahi izan dut. Gauza konkretuetatik abiatzen naiz, etxeetan izaten ditugun gauzetatik. Atea, lehioa, alfombra, mahaia, koilara-sardexkak... horietatik abiatuta zergatik erabiltzen ditugun gauza horiek, nondik barrena ohitu garen horiek erabiltzeraz... Zergatik erabiltzen ditugu hainbeste gauza? Historia luzean beti gauzak ugari izan dira, kobazuloetan 10-20 gauza

erabiltzen bazituzten, orain, labora-dora bezalako gauza konplejuak ditugu etxean eta piezatan zatituz gero milioika gauza ditugu bakoitzak norbere etxean... Gauza konpleju horiek dira gehienbat harritzen nauenak. Kurioa da mahai bat guk zergatik erabiltzen dugun eta beste batzuek ez eta jakingarria izan daiteke. Gure barruan presentzia handia duten eta espazioa jaten ditugun gauzak dira; telebista, kable, irrati, pantaila, telefonoa... hauek dira espazioa eta denbora kendu, zurruputzen ditugunak eta geureak ez diren bide batzuetatik eramaten gaituztenak. Liburu gehienak fikziozkoak ditut eginak baina *Gauzen Presentzia* liburua, artikulua sorta bat izan zitekeen baina luzatu egin zitzaidan eta liburua hartu zuen, hainbat artikuluren bilduma izan zitekeen liburua da.

**la bi urtera gazteleraz argitaratu da. Nolatan?**

Liburua euskaraz publikatzerako, artean gure ama bizi zela, ez zuela

ezagutzen eta berak irakurtzeko lehen bailehen itzultzeko eskatu zidan. Berak bazuen argitaletxe bat eta publikatu egin nahi zuen. Baina ez zuen denborarik izan, tar-te horretan hil baitzen. Hala ere, bere jarraitzaileek edota orain argitaletxea daramatenek asmo edo nahi horri eutsi egiten ziotela esan zidaten eta argitaratu egin da.

**Irakurri nuen zure burua ez duzula idazletzat.**

Idazletzat bai baina ez zait gustatzen sobera azaltzea. Ez zait gustatzen gehiegi baloratzea. Beste edozein bezalako naiz eta nik uste dut denok ditugula gauza interesgarriak esateko eta nik uste kasu gu-

**Euskara hizkuntza bizia zela konturatu nintzen eta zaletasuna piztu zitzaidan**

**Ahalik eta gehien anonimatuari eusten saiatzen naiz, niretzat ideala hori da**

txi egiten zaiola oro har jendeari.

Eta gero, halako garrantzia ematen zaie batzuei liburu bat atera dutelako. Niretzat ideala anonimatua litzateke (nahiz eta elkarrizketa hau anonimatuaen aurka joan) ahalik eta gehien anonimatuari eusten saiatzen naiz. Norberak bere iritziak ematea baina fir-matu behar ez izateko gustatuko liz-ta idake. Batzuk izenarekin identifikatzen dira gehiago eta pentsamentua bigarren maila geratzen da eta beste batzuek gehiago baloratzen dute halako delako edota gutxietsi egingo dute arrazoi beragatik. Orduan nire ideala, liburu hau idaztean, *Gauzen Presentzia*, anonimatua zen. Orain dela mende asko, Erdi Aroan, anonimatua zen miresten zena, eta ez zekiten zeinek margotu zuen koardro hori edo halako pergaminotan zeinek idatzi zuen eta jendeak ez zion garrantziarik ematen izenari. Eta hau litzateke niretzat ideala baina ez da posible.

**Eta orain zer darabilzu esku artean?**

Bi urte hauetan ez naiz geldirik egon eta beste bi liburu idatzirik ditut eta aurten ez bada datorren urtean ziur aski publikatuko dira. Bata, nobela da eta bestea, Nasr Eddin-en pasadizoen liburua izango da, Anatolia aldeko pertsonaia da eta XIII. mendekoa da. Nola bait hemengo Fernando Amezketarraren estiloko pertsonaia litzateke.

## 'Kabitik plazara' ekimeneko azkeneko bertso saioa, «mundiala»

**Kultura** » 70 lagun inguru bildu ziren lurre elkartearen, Peñagarikano, Gorostidi eta Iruzu bertsolarietako batera.

**ERREDAKZIOA**

Txolarre Irratiak martxan jarritako *Kabitik Plazara* ekimeneko azken bertso afaria egin zuten pasa den asteburuan Tolosako Iurre Elkartearen. Bertan 70 lagun elkartu ziren eta guztiek ere afari ederraz eta «bertso saio mundialaz» gozatzeko aukera paregabea izan zuten.

Bixente Gorostidi, Anjel Mari Peñagarikano eta Jexux Mari Iruzu izan ziren bertsolariak, hiruk ere eskualdekoak. Afalostean, bi saio egin zituzten.

**Igotz Alkorta, gai-jartzaile**

Lehenik, gaia jarrita aritu ziren, Igotz Alkorta gai-jartzailearen agindupean. Ordu bete pasatxoko saioa egin zuten. Ardatza, irratia izan zen. Maiatzara arteko albisteak eman zituzten, iragarkiak ere egin zituzten, aitasunaz hitz egin zuten irratiko tertulian bertso sorta ederrak eman zituen lehenengo saio honek. Jendeak gustura egin zuen barre bertsolarien irtee-rekin.

Bigarren zatian, librea aritu ziren hiru bertsolariak. Hemen ere bertso ederrak bota zituzten. Hiru bertsolariak eskualdekoak izanik, norberari bere herria defendatzea egokitu zitzaion beste bertsolarien erasoetatik. Hirurak ere bikain aritu ziren.

**Agurrean, Txolarri eta lurre elkarteari eskerrak**

Orotara 2 ordu eta erdi aritu ziren Iruzu, Peñagarikano eta Gorostidi bertsolariak. Azkeneko agurrean, go-goan izan zituzten Txolarre Irratia, eta horren afari ederra prestatu zuten Iurre Elkarteak. «Merezitako» loreak bota zituzten aipatutako biontzat.

Esker hitzekin jarraituz, Txolarre Irratiak Iurre Elkarteari eskertu nahi izan dio ekimen hau antolatzeko «erakutsi duen prestutasuna».

Bai eskualdeko irratia eta bai Tolosako elkarteak «oso gustura» geratu dira pasa den larunbatean ekimena nola atera den ikusita. «Esperientzia errepikatzeko moduko ia izan da», azaldu dute antolatzailuek.

Bertan egotetik izan ez zutenentzat, larunbateko bertso afari-ko bertsoak entzungai daude dagoeneko Txolarre Irratiako webgunean, *Kabitik Plazara* atalean klikatuta, hain zuzen ere. ([www.txolarre.org/KabitikPlazara.htm](http://www.txolarre.org/KabitikPlazara.htm)).

# Azken 12 urteak honela ikusten ditu Arsuagak

**Tolosa** » 'Kaleidoskopio +12' izenburupean, artista tolosarrak bildutako lanak ikusgai dira orain, Aranburu jauregian.

## ERREDAKZIOA

Aste Santu hauetan herrian geratu behar dutenentzat eta zer egin oraindik erabaki ez dutenentzat aukera bikaina eskaintzen du Aranburu jauregiak. Izan ere, joan den larunbategi, ikusgai da Mariano Arsuagaren *Kaleidoskopio +12* izeneko bilduma. Erakusketa hurrengo egunetan zabalik izango da goizez nahiz arratsalde. Hilaren 9tik 13ra hau izango da ordutegia: 10:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.

Egilearen hitzetan, «erakusketa hau kaleidoskopio bat da, eta azken 12 urteetan ikuspegiak dituen irudiak».

Aretoaren sarreran, Bernardo Atxagaren hainbat idatzi aurkitu daitezke serigrafian eginak. Honek, nolabait, liburutegia eta erakustaretoak lotzen ditu. Hitza eta grafiakuztartzuz, Arsuagaren azken bi pintura serieak aurkitu daitezke. Alde batetik, labirintoak daude, «zalantzak dituztenen aberria», eta bestetik, ate sekretuak, «pintura ezagutza eta emoziorako atea denaren baieztapena». Honetatik gain, mihise handietako lanen emaitzak nahiz bloketako marrazki txikiak ipini ditu ikusgai.

Sei urtez Okupgraf-eko koordinatzaile izan zen Arsuaga, eta bertan egindako zenbait lan erakusten ditu, bitrintetan gordeta dauden liburuetan. Bera emazte den Maria Cuetoekin batera, Titirijai-08an aurkeztu zen *Lorezaina* antzezlanerako prestatu zuten eszenografiako irudiak ere aurki daitezke Aranburun.



Azken 12 urteetan Arsuagak egindako lanak aurkitu daitezke Aranburun. E.E.



Tolosalde IKT-ko igerilariak. HITZA

## Emaitza onak lortu dituzte Tolosaldea IKTkoek, Espainiakoan

**Igeriketa** » Espainiako Igeriketa Txapelketa jokatu da Castellon eta Malagan; bertan lehiatu dira eskualdekoak.

## ERREDAKZIOA

Espainiako Igeriketa Txapelketa jokatu da duela egun gutxi eta bertan izan dira Tolosaldea Igeri Kirol Taldekoak. Castellonen juniorren mailako jardunaldiak izan ziren eta Malagan, Open absolutua. Azken hau 50 metroko igerilekuan egin zen.

Eskualdeko junior mailako igerilariak marka bikainak lortu zituzten. Esaterako, Josu Karrerak kalitate handiko saioa egin zuen, erakutsiz, Gipuzkoako onenetako bat dela. Aitor Lekuona ere oso ongi aritu zen eta estatu mailan 10. geratu zen. Ekaitz Privadok ere postu bera lortu zuen beste frogarekin. Jon Azpiazu eta Pablo Uzquidun gazteak berriz, Malagan izan ziren eta hauek ere saio onak egin zituzten.

# Tolosako Orfeoia kontzertua eskainiko du gaur iluntzean, San Frantzisko elizan

**Tolosa** » 20:30ean hasiko da emanaldia; Bertan, Gabriel Fraure musikari frantsesaren 'Requiem'-a interpretatuko dute.

## ERREDAKZIOA

Tolosako Orfeoia entzuteko aukerazango da gaur gauean San Frantzisko elizan. 20:30ean hasiko da emanaldia. Musika ekitaldi hau tradizio baten barruan sartzen da, Aste Santu aurreko sasoiaren elizetan musika eta auto sakramentalak eskaintzekoan hain zuzen ere.

Tolosako Orfeoia Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean, Gabriel Faureren *Requiem* interpretatuko du. Beraiekin batera izango dira Borja Rubiños organo jotzailea, Amia Arberas sopranoa eta Pedro Quilarte baritonoa.

## 'Requiem' ezagunenetakoa da gaur entzungo dena

Gabriel Faureren *Requiem Re minorrean*, Op. 48 *requiem* meza ezagunenetakoa bat da. Ederrenetakoa bat bezala jotzen da, eta ohikoa da abesbatza eta orkestrek interpretatzea. 1886 eta 1888 artean idatzi zuen eta lehendabiziko aldiz Madeleineko elizan interpretatu zuen, 1888an, hileta elizkizun batean, eta maiatzean, kontzertu gi-



Orfeoia aurten Tolosan eskaintzen duen lehen kontzertua izango da hau. I.T.

sara. Pieza honek zazpi atal ditu, ordu eta erdi irauten du eta testua latinez dago idatzia.

Lan hau genero erromantikoa-ren funtsa da askorentzat. XIX. mendeko beste Requimetatik bereizten da ez delako obra operistiko bat eta sailhestu egiten duela azken judizioa izua, judizio intimo, baketsu eta abegitsu eskainiz. Honela azaltzen duen egileak: «Esan izan da nire requiemak ez duela heriotzarekiko beldurra

adierazten, eta baten batek heriotzaren urruma deitu izan du. Bada, horrela ikusten dut nik heriotza: zorieko askapen legez, gorago zorianasuna lortzeko nahia legez, esperientzia penagarria izan beharrean».

## Frantziar musikaren defendatzaile

Gabriel Urbain Faure Parisen jaio zen 1845ean. Konpositore, pedagogo eta organo jotzailea izan zen.

Erromantikoa bere hastapen garaietan, eta Richard Wagneren musikaren jarraitzaile. Ondoren, musika frantseseko korronte impresionistara gehitu zen. Bereak fintasun melodiko eta oreka musikagile handia lortu zuen.

Europar musika erromantiko alemaniarren emaitzak eta teknikak hartzeko joera zegoen garaian Gabriel Faurek musika frantziarra defendatzen eta zabalitzen jardun zuen.

## Javier Sarasa txistulari eta txistu irakasle ohia hil da

## ERREDAKZIOA

Javier Sarasa txistulari eta txistu irakaslea hil zen atzo 64 urte zituela. Anoetako musika eskola sortu zenetik bertako txistu irakasle izan zen, duela bi urte, jubilatua zen arte. Loatzo musika eskolako zuzendaria den Miren Mujikak azaldu duenez, «Anoetan txistua baldin badago, berari esker da». Egun Atallon (Nafarroa) bizi zen baina Anoetarekin zuen lotura galdu gabe, ezta Loatzo eskolarekin ere.

Anoetako Txistulari Bandaren sortzaile izan zen eta egun, banda hori osatzen dutenak, bere ikasle izan ziren.

Aipatzeko da, atzo bi urte omenaldia egin ziotela Anoetako elizan Loatzo musika eskola zein Anoetako eta Irurako Udalen eskutik.

# Lan Ordezkaritzak dioenaren zain daude Insaluseko langileak

**Lizartza** » Enpresak lan erregulazio txostena eskatu du; ikuskariak 15 bat egun barru emango die erantzuna.

REBEKA CALVO

Lizartzako Insaluseko 34 langileetako 22ri eragiten dien lan erregulazio txostena aurkeztu du enpresak Lan Ordezkaritzan.

Atzo izan zuten Eusko Jaurlaritzako ikuskariaren aurreko agerraldia Lan Ordezkaritzak erregulazio txostena onartuko duen edo ez erabakitzeke eta 15 bat egun barru izango dute erantzuna.

Insaluseko enpresa-batzordeak (LABeko hiru ordezkarik osatzen dutena) esandakoaren arabera, urtebeteko iraupena izango du enpresak aurkeztutako erregulazio

txostenak, «apiriletik apirilera; apiriletik irailera asteen egun batekoa eta irailetik apirilera asteen bi egunetako». «Gaur goizean —atzo— izan dugu bilera eta bertan enpresaren argudioa diru kontuak izan dira. Hau da, enpresak dio baduela ordaindu beharreko hipoteka eta horretarako diru nahikoa ez duela eta horregatik eskatu duela lan erregulazio txostena, horrekin dirua aurrezteko aukera izango duela. Bere kalkuluen arabera, 250.000 euro aurreztuko dituzte gu langabezira bidalita», argitu zuen atzo enpresa-batzordeak. «Gulangile bezala enpresaren alde egiteko prest gaude eta esfortzua egin egin dugu, gainera; apirillean 15. soldata jasotzea egokitzen zaigu eta uko egin diogu», gaineratu zuten langileek.

«Ikuskariak horrelakoak eguneroko sartzen ari direla esan dugu



Insalus enpresak hipoteka ordaintzeko arazoak dituela dio. I. TERRADILLOS

eta gurea ez dela larritzekoa ere esan dugu, azkeneko urteetan ekoizpena mantendu dugulako. Kontua da enpresak diola hipoteka ordaintzeko arazoak dituela, bankuek ez diotela laguntzen eta hipoteka lehenbailehen amortizatzeke hau egin nahi dutela. Kontutan hartu behar da iaizko ekitaldian hipotekaren zenbatekoa kenduta 400.000 euroko irabaziak izan zirela enpresan gastuak ere kontutan hartuta (langileen soldatak, gizarte-segurantza, mantenu gastuak...) eta salmentak ere alde atera ziren. Hala ere, eurek beti esaten dute urtero-urtero dirua galtzen dutela», azpimarratu zuen enpresa-batzordeak. Langileek argi dute, hala ere, urteroko galerak badaude

hipoteka hori ordaindu behar delako dela eta ez ekoizpenik ez dagoelako; «Lantokia berria da eta nahi dutena da hipoteka ahal den eperik motzenez buelta ematea, baina garrantzitsuena da argi izatea enpresak etorkizuna baduela, behar bada bi urte ez oso onak izango ditugu aurretik, baina gero etorkizuna duen ekoizpena dugu».

## Soldata osagarriak ez

Aipatu behar da, eraberean, enpresa-batzordeak soldata osagarria ere eskatu zuela, baina «ukatu egin digute».

Horiek horrela, langileek soldaten %70 bakarrik jasoko dute. «Atzera ere egin behar dugu, lau

urteetako hitzarmena sinatu genuen gure borondatearen aurka, guk urtetik urtera berriro nahi genuen eta baina azkenean ez genuen lortu. Horrela lehenik eta behin soldatak %5 jaitzi zizkiguten, gero soldatak bere horretan mantenduko zituztela esan ziguten, ondoren apirileko soldata hau etorri da... Kontua da lan erregulazio txosten berri hau orain atzeratzea, martxoaren 7an, eta horrekin kristoren onurak ematen dizkiola enpresari, baita langileari ere, baina batez ere enpresari, zer esan nahi dugu honekin? Lehen enpresak gizarte-segurantzaren %100 ordaintzen zuela eta orain %50 bakarrik... Ondorioz, txostena bere horretan ateratzen bada langile bakoitzari urteko 82 egunetara gingo dio eta horrela aurreztuko du enpresak 300.000 euro, hipoteka ordaintzeko. Eta horregatik ez dute nahi aurretik hartutako neurriekin geratu —apirileko soldata horiek ez ordaindu...— horrekin 70.000 euro bakarrik aurreztuko lituzteke eta», argitu zuten.

Enpresa-batzordeak mobilizazioak egiteko prest dagoela ere esan zuen, pasa den larunbatean elkarretaraztearekin egin zuten, baina oraingoz Lan Ordezkaritzaren erantzunaren zai geratuko dira zer egin erabakitzeke.

# Gaztetxean lapurreta egin dute berriz ere

**Anoeta** » Dirua eta edari «dezentek» lapurtu dute; musika lokaletako bitan ere sartu dira, baina ez dute ezer eraman.

ERREDAKZIO

Anoetako Edurka pabilioiaren inguruan dauden erremintetako esmerila hartuta puskatu zuten Gaztetxeke atea astelehen gauean eta horrela lortu zuten beste behin ere bertara sartu eta lapurtzea. Aipatu behar da Edurkan Gaztetxea, Txolarre Irratia (aurrekoan bertara ere sartu ziren lapurtzera) eta musika lokalak daudela.

Oraingoz ez dute aparteko ezer eraman, aurrekoetan bezala,



Horrela utzi dute lapurrek atea bertara sartu eta gero. ANOETAKO GAZTETXEA

diru piska bat, «asteburuko kanbioak», eta edari «dezentek». Baina Gaztetxeke arduradunak, hala ere, «nazka-nazka» egin da daude. Izan ere, 2006. urtetik zazpigarren aldia da bertara sartu direla lapurtzera.

## Baita musika lokaletan

Oraingoz Gaztetxean bertan eta ondoko musika lokaletako bitan sartu dira, nahiz eta azken hauetan dena nahastu badute ere ez duten ezer eraman.

Gaztetxea txukuntzeko egindako lanetan ere lapurretak ekiditeko neurriak hartu izan dituzte, «baina alperrik».

Hau guztia salatzeke atzo iluntzean prentsaurrekoa eta manifestazioa ere egin zuten herrian.

# Pazko hirurrena ospatzeko elizkizunak

ERREDAKZIOA

Pazko hirurrena ospatzeko elizkizunak egingo dituzte Tolosan eta Ibarren. Ostegun Santuan mezak izango dira Tolosako Santa Marian, San Frantziskon eta Corpus Christin 19:00etan; Ibarako San Bartolomen 19:30ean eta Amaratzen 18:00etan. Ostiral Santuan, aldiz, gurutzte-bidea izango da Santa Klaratik Izaskuenera 07:30ean eta baita Jaunaren Heriotzaren ospakizunak ere arratsaldean zehar. Larunbat Santuko Pazko Gaubelila dela eta Tolosako Santa Marian 21:30ean izango da meza, Corpus Christin eta San Frantziskon 21:00etan eta San Bartolomen eta Amaratzen 19:30ean.

## Hilberria

### JAVIER SARASA AMEZTOY



Une gogor hauetan zuekin gaude.

Irurako ikastolako Ibaneren lankideak

IRURAN  
2009ko apirilaren  
8an

### JAVIER SARASA AMEZTOY



Zure txistu hotsa gure bihotzean geratuko da.



Loatzeko musik eskola

ZIZURKILEN  
2009ko apirilaren  
8an

### JAVIER SARASA AMEZTOY

(LANGILE OHIA)



Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin

Anoetako Udala

Hileta gaur, apirilak 8, Atallon izango da, arratsaldeko 16:30ean.

ANOETAN  
2009ko apirilaren  
8an

## Leitza eta Aresoko familia euskaldunentzat aukera

**Euskara** » Uda honetan etxean euskara ikasten dabilen jendea hartzeko aukera egongo da apirilaren 24ra bitarte.

### ASIER IMAZ

Udan euskara ikasten ari den jendea hartzeko prest dauden familia euskaldunak behar dira. Deialdi hau luzatu diete herritarrei Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko Euskara Zerbitzuetik.

Izena emateko epea hilaren 24an amaituko zaie Aresoko eta Leitzako familiei.

### Areso eta Leitza

Uda honetan hainbat jende ibiliko da Euskal Herrian zehar euskara ikasten. Modu ugari daude gure hizkuntza ikasteko, baina egunero erabiltzeko, aukera bikaina eskaini ohi dute euskaraz mintzo diren familiek. Horregatik, hauei deialdia egin diete: udara honetan eduki euskara ikasten ari den ikaslea etxean.

Aresoko eta Leitzako herritarrek, prest egonezkerok, hilaren 24ra bitarte edukiko dute ekimenarekin bat egiteko aukera. Izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko hiru aukera daude: Udaletxeko Euskara Zerbitzuan; Urrats Euskaltegira deituta, 94347

44 47 telefono zenbakira hain zuzen edota [www.egonaldiak.net](http://www.egonaldiak.net) webgunean begiratu.

### Baldintzak eta trukean zer?

Egonaldiak hamabost egunekoak, hilabeteakoak edo bi hilabeteakoak izan daitezke eta egonaldi bakoitzean lagun bakarra hartu ahal izango da. Ikasleak 18 urtetik gorakoak izango dira. Egonaldia eskaintzen den epealdian etxean, gutxienez, hiru lagunek bizi beharko dute. Ikasleentzako logela bat libre izan beharko du. Hauek dira bete beharreko baldintzak.

Trukean berriz, ikaslea etxean edukiko duten denboraren arabereko diru kopurua jasoko dute.



Euskal Herriko hainbat txapelketetan aritu dira leitzarrak asteburuan. N. URIBIZU

## Euskal Herrian zehar ibili dira Leitzako pilotari gazteak

**Pilota** » Zizurko Txapelketan finalak jokatu ziren asteburuan eta Aurrera Pilota Eskolakoak hiru mailatan aritu ziren.

### A. IMAZ

Aurrera Pilota Eskolakoek partida ugari jokatu zituzten azken asteburuan. Euskal Herrian zehar, hainbat herrietako txapelketek leitzarren presentzia eduki zuten.

### Zizurko Txapelketa

Finalak jokatu zituzten Zizurko Txapelketan. Larunbatean hiru partidetan leitzarrak aritu ziren. Zizurko frontoian, infantiletan, Anartz Olanok eta Egigurenek jokatu zuten finala. Lehenak 16 eta 13 irabazi zion bigarrenari.

Ondoren kadeteak irten ziren eta Xabi Jaunarenak amore eman behar izan zuen Artolaren aurrean, 3-18 galdu zuelarik.

Azkenik, leitzarrei zegokienez, alebinetan Jon Lezeak 7 eta 16 galdu zuten Ansoren aurka.

### Lizarrako Txapelketa

Lizarran nahiz eta oraindik finalik ez jokatu, Aurrerako hiru bikote Jaunarenak bertan larunbatean.

Alebinek bakarrak lortu zuten garaipena, Eskudero-Eraso bikoteak hain zuzen ere, 18-16ko emaitzarekin.

Infantiletan Barberenak eta Sagastibeltza Egüesek 8-18 galdu zuten. Maila berean Arberasek eta Galartzak 16-18 galdu zuten.

### Paleta Goma Iruritan

Iruritan Emakumeen Paleta Goma Txapelketan, seniorretan, Iera Agirre eta Saioa Aristorena egon ziren. Bikote leitzarrak erraz irabazi zuten partida larunbatean, 30-9ko emaitzarekin.

### Jon Jaunarena Hernanin

Nafarroaren izenean jokatu zuten ingandean Jon Jaunarenak Hernanin GRAVN Torneoa. Bertan, leitzarrak Gipuzkoa mendean hartu zuten 22-9 ko emaitzarekin, jubilenen mailan.

### Zaramago eta Elgeta

Gasteizen eta Elgetan jokatu zituzten Aurrerako pilotarietako asteburu-ko azken partidak. Zaramagoko Txapelketan Olano-Tolosak 18 eta 10 irabazi zieten Mujika-Irurietagorenari.

Elgetako Txapelketan Xabier Jaunarenak 22-7 irabaziz ion Martinezi.

## Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi Urrezko Aizkolari

**Leitza** » Lekunberrin jokatu da kanporaketa 12:00etatik aurrera eta lehen biak bakarrak pasako dira hurrengo fasera.

### A. IMAZ

Lekunberriko pilotalekuan Urrezko Aizkolariaren Txapelketaren kanporaketa jokatu da hilaren 11n, larunbatean. Bertan egongo

dira Leitzako bi aizkolari: Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi.

### Zortzi aizkolari nor baino nor

Urrezko aizkolariak nor den ez da erabakiko larunbatean Lekunberriko pilotalekuan, izan ere, Txapelketaren kanporaketa bat jokatu dute zortzi aizkolari.

Bi leitzarrek batera, Olanorekin eta Saralegirekin, ondorengo aizkolariak joango dira pilotalekuan larunbatean: Jose Ugarteburu;

JJ Barberena; Jose Etxebeste; Arkaitz Jauregi; Patxi Mindegia eta Ugaitz Mugerza, Mugerza II.a.

### Lan ona egin behar

Zortzi aizkolariak lanean 12:00etan hasiko dira Lekunberriko pilotalekuan. Kanporaketa bat izaki, aurrera egiteko lan ona egin beharko dute aizkolariak, izan ere, aurrera lehen bi bakarrak egongo dute. Gazteen eta helduen arteko lehia izanen da larunbatekoa.



## 'La Buena Nueva' Uruguay-en

**LEITZA** » Beste hainbat herriren artean Leitzan grabatu zen *La Buena Nueva* filma Uruguay-en aurkitzen da egun hauetan. Bertan, hilaren 4an, XXVII. Nazioarteko Zine Jaialdia jarri zuten martxan eta Helena Tabernak zuzendutako filma Sekzio Ofizialean aurkitzen da.

*La Buena Nueva* lanarekin Iberoamerikar Saria irabazteko aukera edukiko dute filmeko partaideek. XXVII. Nazioarteko Zine Jaialdia Cinemateca Uruguaya Elkarteak antolatzen du eta hilaren 18an amaituko da. N. GARZIA

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Hiru ahari eta esne tankea.** Hiru ahari latxa mutur gorri eta esnea hozteko 250 litroko tankea salgai. Harremanetarako deitu ondorengo telefonora: 948 50 44 98.

### ALOKAIRUA

■ **Baserria edo borda.** Baseri bat edo borda bat alokatuko genuke. Merkea edo oso merkea. Egoerak berdin dio. Harremanetarako deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

**@ Papereko Edizioa.** Sartu gure web orriaren *Papereko Edizioa* atalean. Horrela sarean egunkarian agertzen diren albiste guztiak irakurtzeko aukera edukiko duzu. Zure herrian gertatu diren albisteak ikusi nahi baldin badituzu gure web orrian, herriaren izenaren gainean klik egin eta ondoren *Papereko Edizioa* jartzen duen atalean sakatu behar duzu. Horrela herri horretako azken albiste guztiak ikusteko aukera eskaintzen dizu gure web orriari. Horretaz gain, albiste bakoitzaren ondoan zure iritzia jar dezakezu, edota beste irakurlearen iritzia irakur ditzazkezu.

[www.tolosaldeko hitza.info](http://www.tolosaldeko hitza.info)



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Ipuin kontaketak

■ **Larrauli.** Maite Franco ipuin kontari ariko da udal liburutegian 17:30ean.

### Deialdiak

■ **Aiztondo.** Aiztondo V. kirol topaketa aurten, maiatzaren 16, larunbatarekin, arratsaldeko 16:00etan, Alkizan egingo da. Izena emateko epea apirilak 8a izango da.

### Musika

■ **Tolosa.** Tolosako Orfeoak Gabriel Faure-ren *Requiem* eskainiko du San Frantzisko elizan 20:30ean.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Mariano Arsuaga artista tolosarraren *Kaleidoskopia*+12 erakusketa Aranburu Jaurregian.  
■ **Tolosa.** Itziar Albisua zumarra-gatarraren olio-lan eta collage-ak Itaie tabernan.

### Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek Galizara maiatzaren 11tik 17ra irteera antolatuko du 255 eurotan bazkideentzat (ez bazkideek 260 euro). Izen-ematea, elkartean bertan.

### Zinema

■ **Tolosa.** *A ciegas* filma Leidor aretoan, gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta larunbatean 19:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritziaren erantzukizunik.

# Aizkardikoak Behorlegira txangoa

**Villabona** » Apirilaren 19an abiatuko dira Olaederra kiroldegitik; sei ordu eta erdi inguruko ibilaldia izango dela aurreikusi dute.

### ERREDAKZIOA

Ikasleen Aste Santuetako oporraldiari amaiera emateko Aizkardi mendi elkarteak irteera antolatuko du. Oraingo honetan Behorlegi eta Ihatea gailurrak igoko dituzte besteak beste. Izena 649717182 telefono zenbakian eman daiteke edota 20:00etatik 22:00etara elkartearen egoitzan bertan. Azken eguna apirilaren 16a izango da. Egunean bertan, 07:00etan abiatuko dira Olaederra kiroldegitik.

Irteera Behorlegin (412m) hasiko dute mendizaleek. Egurtze lepoa igoko dute (912m) eta Harritxartera abiatuko dira (1050m). Hain zuzen ere, hemendik Behorlegira igaroko dira (1265m).

Hemendik jaitsierari ekingo diote Auxkira doan errepidea hartu arte. Behin baino gehiagotan gurutzatuko dute errepide hau Bo-



Behorlegi mendia igoko dute mendizaleek heldu den apirilaren 19an. HITZA

hokortera igoera egiteko. Gailur honek 1214 metroko garaiera du.

Basotik barrena igoeratzeko bat

egingo dute eta Ihatea tontorreraino helduko dira (1276 m). Hain zuzen hau izango da irteeraren punturik altuena. Hemendik berriko

jaitsierari ekingo diote Altzurukura arte (220m). 23 kilometroko inguruko irteera izango da.

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa


agurrak



opor hauetan  
atera argazkiak!



Sari mundialak



## ARGAZKIAK NORA BIDALI

- **P. elektronikoa:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
  - **Postaz:** Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behea, atzea 20400 TOLOSA
- Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitza HITZAren egoitzetara ekarri

Parte-hartzaile eta boto emaleen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!